

# Idatzizko kazetaritza, arkatzetik auskalora!

Beñardo Kortabarria Olabarria

Elhuyar

**Kazetariak sarri askotan eguerdi aldera iristen dira lantokira. Ordenagailua pizten dute, posta elektronikoari irakurketa bizkorra egin, atentzioa eman dien hari begiratu eta jaso egiten dute. Gero, eguneroko bileran gaia erabakitzen dute, berriro ordenagailura jotzen dute, informazioa bilatu, argazkiren bat edo beste eskuratu, telefono mugikorrarekin deiren bat egin... eta, azkenik, idazteari ekiten diote.**

40 URTEREN BUELTAN GABILTZANOK GAIZKI ORDAINDUTAKO OGIBIDE HAU AUKERATU GENUJENAN, gauzak, oinarrian antzerakoak baziren ere, zailagoak izaten ziren. Izan ere, kazetaritza ez da zientziaren eta teknologiaren azken 25 urteotako garapen izugarriaren bazter geratu.




Teknologiaren garapenak erabat aldatu du kazetarien lana.

ARTXIBOK

Prensa idatzian, batzuetan eskuz idazten bazen ere, –arkatzez zein boligraf, eta handiusteenek idazlumaz– lan-tresna nagusia idazmakina zen. Gaur egungo ordenagailuekin alderatuta, tresna traketsa zen, baina idazteko funtzioa –betiere idazlearen trebetasunaren arabera– ondo betetzen zuen. Arazorik ohikoenak tinta zeraman zinta kateatzea, bukatzea edo hondatzea izaten ziren; gehienetan presa handia zegoenean. Oro har, kazetariak gaur baino arreta handiagoz idazten zuten, makinaz egindako akatsak ez zirelako

ordenagailuz egindakoak bezain erraz konpontzen. Dena dela, sarritan paper ondo zikinak iristen ziren maketa egin behar zutenengana.



Tipp-Ex-ak kazetaritza garbiagoa egiteko aukera ekarri zuen.

ARTXIBOKA

## Arkatza

Arkatza idazkeraren historiako aurkikuntzarik interesgarri eta eraginkorrenetarikoa da. Barrualdean grafitoz eta buztinez osatutako nahastea du. Nahaste hori egurrezko bi zatitan biltzeko ideia William Monroe estatubatuarrena da, 1812. urtekoa. Likidoak erabiltzen dituzten gainerako sistemen ondoan, arkatzak badu abantailarik: erraz ezaba daiteke.



kolorea, argazkien tratamendua eta aukeraketa, izenburuak, lerroak, zuzenketak, grafikoak... guztia ordenagailuz lantzen du. Bere tokitik mugitu gabe, makinetara bidaltzen du maketa, haiek kopiak egin ditzaten.

*“gaur egungo ordenagailuetan testu prozesatzaileetan landutako testuak jasotzen ditu maketagileak, paperik ukitu gabe”*

Eskuz idazteko metodoen ondoan idazmakina aurrerapen itzela izan bazen ere, tekla zatatsuen mundu hartara Tipp-Ex-a iristea ezin esan iraultza izan zenik, baina bai garrantzizkoa izan zela. Orban beltzak eta urdinak pape-retatik bat batean desagertu ziren, eta zuriak agertu. Orbanak egon han egoten ziren, baina ezkutatuta. Beraz, idatzizko komunikabideetako maketagileen lana asko erraztu zen.

## Agur tipometroari

Maketa egiteko modua bera ere ikaragarri aldatu da. Gaur egungo ordenagailuetan testu prozesatzaileetan landutako testuak jasotzen ditu maketagileak, paperik ukitu gabe. Ordenagailuaren pantailan egunkariaren edo aldizkariaren aurre-maketa –planoa– izaten du. Jasotako testuak han jartzen ditu, letren tamaina, letra-mota –tipoa–,


Duela 20 urte, idatzizko komunikabideetan maketak egiteko prozesua neketsuagoa izaten zen. Egunkariaren edo aldizkariaren orrialde hutsak izaten zituzten kazetariak edo maketagileak –antolamenduaren arabera–. Zein eta zenbat toki izango zuten aurreikusita lan egiten zen batzuetan, eta horren arabera testua eta material grafikoak lantzen ziren; beste batzuetan, aldiz, materialen –eta horren garrantziaren– arabera toki egiten zen egunkarian edo aldizkarian. Kasu batean zein bestean, testua eta elementu grafikoak islatzen zituzten maketak egiten ziren.

Gaur egun letren tamaina erabakitze-ko edo letra-tipoa aldatzeko, ordenagailuaren tekla pare bat sakatzea nahikoa izaten da. Orduan, maketan zenbat lerro, zein tamainakoak eta zein letra-motakoak sartuko ziren jakiteko –eta horiek hainbeste karaktereko testu soilean zenbat lerro izaten ziren jakiteko– tipometroa erabiltzen zen.

Tipometroa komunikabideetan erabiltzen zen erregela berezia da. Letren tamaina neurtzeko erabiltzen da. Tipometroa erabilia jakiten da tamaina jakin bateko zenbat karaktere, hizki edo tipo sartzen diren egunkariko edo aldizkariako lerro bakoitzean. Eta hortaz, hiruko erregela sinplea eginda, idazleak badaki zenbat lerro jarraitu idatzi beharko dituen. Izenburuak, argazkiak eta publizitate-moduluak neurtzeko ere erabiltzen da. Hiruko erregela sinplea bada ere, sistemak nahikoa buruhauste eragiten du, matematikak eta prosa –matematikariak eta kazetariak– historikoki ez baitira oso ondo ezkondu. ➔

## Boligrafoa

Boligrafoaren lehen patentea Hungarian egin zen, 1938. urtean, Ladislao Biroren eskutik eta Birome izenarekin. Biro judutarra zen, eta 1940. urtean alemaniarrengandik ihes egin behar izan zuen. Argentinara iritsi eta han berriro erregistratu zuen asmakizuna. Birok luma baten muturrean bolatxoa jarri zuen, birak egin ahala tinta-arrastoa uzten duen bolatxoa alegia.



Tipometroa.

### Argazki-kamera

1822. urtean Joseph N. Niepce asmatzaile frantziarrak lehen argazki iraunkorra lortu zuen. Hala ere, 1839. urtera arte ez zen gehiegi aurreratu. Urte hartan, Louis Jacques Mande Daguerre frantziarrak, argiak zilar-gatz esekidura batean berak agindu bezala eragitea lortu zuen. Proba ondo atera zen, baina prozesua osatzeko ordu-erdi inguru behar zen eta oso zaila zen kopia egitea. 1841. urtean William Henry Talbot britainiarrak arazoa gainditu zuen, lehenik irudien negatiboak egin eta gero positiboak beste paper batzuetan egiteko sistema asmatu baitzuen. Hortik aurrera inpresio-denbora azkartzeko lanari ekin zitzaion. 1871. urtean, R.L. Maddox-ek lehen plaka lehor egonkorak lortu zituen; horrela, esposizio-denbora laburtu zuen, eta obturadorea asmatzea lortu zuen. Ondorioz tamaina txikiko lehen kamerak irten ziren merkatura 1888an, Kodak kamerak. 1907an koloretako lehen argazkiak atera ziren, eta 1947an Polaroid kamerak.



Gaur egun ikerketa astronomikoen ondorioz asmatutako kamera digitalak tokia egiten ari dira merkatuan, erabat automatikoak izan daitezke, irudiak berehala ikus daitezke, ordenagailuan kargatu, ukituak egin....


### Argazkilaritza artea omen

Testuekin batera, idatzizko komunikabideetako orrialdeak argazkiz betetzen ziren. Oinarrian, egungo argazkilarien lanaren eta lehengoenen artean ez dago alde handirik. Argazkia atera, errebelatu eta, gainerako elementu guztiekin, inprimatzera eramaten da. Baina baliabideei dagokienez, mende laurdenean koska handia egin da.

*“gaur egungo argazki-kamerak –hausteko arriskurik ez balute– umeez erabiltzeko modukoak dira”*

Duela 25 urte argazki onak egiteko, asko egiteaz gain, argazkiak ateratzen jakin egin behar zen. Argia zaindu, diafragma irekiago edo itxiago jarri, distantzia kalkulatu, esposizioaren denbora erabaki... argazkilaritza artistentzat erreserbatutako lan-eremua zen. Gero, gainera, argazkiak errebelatu egin behar izaten ziren, denbora errekorrean eta nola halako kondizioetan eta nola halako laborategietan. Harreman estua zegoen argazkilarien eta gela ilunaren artean; errebelatzeko likidoak, argazkilaritzako papera, errebelatua gerazteko likidoa, finkatzailea, ... argazkilarien eskulanerako lehengai izaten ziren. Sarritan, erredakzioetan urduritasuna nagusi izaten zen argazkilaria gela iluneko atea irekitzen zituen arte.

Sasoi hartan ustez idazten baino ez genekien kazetariok gaur egun argazki onak ere egiten ditugu noiz edo noiz. Esperientziak izango du zerikusirik horretan, baina arrazoi nagusia




teknologiaren aurrerapena izan da. Izan ere, gaur egungo argazki-kamerak –hausteko arriskurik ez balute– umeez erabiltzeko modukoak dira. Kamera modu automatikoan jarri, norberak nahi duen enkoaraketa egin eta boitoxoa sakatu baino ez da egin behar, gainerakoa berak egiten du: motiboa enfokatu, argia neurtu, esposizioaren denbora erabaki....

### Faxa

Faxa asmakizun berria da (1980 urtea) nahiz eta oinarritzko ideia XX. mendearen hasierarako jarri zuen Arthur Korn alemaniarrak. Korn-ek teleargazkia izeneko prozesua asmatu zuen. Prozesu hartan, kable baten bidez bidalitako seinaleak iruditan jasotzeko. 1980. urtean, RCA, Sharp eta Xerox enpresek ideia berraztertu eta faxa merkaturatu zuten. Posta-zerbitzua eta telefono bidezko komunikazioak tresna bakar batean bildu zituen.





ARTXIBOKOA

Azken urteotan agertu eta garatzen ari diren argazki-kamera digitalek, gainera, argazkilarien lana egiteko modua ere aldatu dute. Gela-ilunak amarauenez betetzen ari dira. Argazkiak atera, ordenagailura pasa, behar izanez gero irudiak tratatzeko programa informatikoekin azken ukituak eman, eta,

*“argazki-kamera digitalek, gainera, argazkilarien lana egiteko modua ere aldatu dute”*

pantailan aukeraketa egin ondoren, ordenagailuaren bidez argazkiak inprimatzera zuzenean bidaltzen dira, negatiboak eta paperak ukitu ere egin gabe.

### Bizikletaz, faxez, posta elektronikoz

Eta bidalketa-kontuak aipatu ditugunez, materiala toki batetik bestera eramateko zeuden baliabideek egin duten aurrerapenari lerro batzuk eskaini dakizkioke. Kazetari-tzaren maila baxuenean hasi ginenok –norberaren herriko kronikak egiten– ondotoxoa dakigu zenbat lan ematen zuten hurrengo egunerako kronika argitaratua ikusteak. ➔



ARTXIBOKOA

### Telefonoa

1876. urteko otsailaren 14an, Alexander Graham Bell-ek telefono elektromagnetiko batentzako lehen patentea eskatu zuen, nahiz eta azken berrien arabera telefonoaren benetako asmatzailea Antonio Meucci italiarra izan zen. Edozelan ere, ikerketak askoz ere lehenago hasita zeuden. Robert Hook-ek 1667. urtean jakinarazi zuen

tentsioan dagoen hari batek soinua transmiti dezakeela. 1820. urtean, Hans Christian Ørsted daniarrak aurkitu zuen korrante elektrikoek

eragina zutela orratz magnetikoetan. Elektromagnetismoa aurkitu zuen. Horretaz baliatuta, hogeita geroago Morse Telegrafoak martxan zeuden. 1878. urtean, munduko lehen telefoniar zerbitzua jarri zuten abian Estatu Batuetako New Haven hirian. Geroztik, telefono-sarea mundu osoan zehar hedatu zen, hasierako kablez betetako zutoinak, lur azpiko eta ur azpiko kablek ordezkatu zituzten, teknologiaren aurrerapenari esker gaur egungo haririk gabeko teknologietara iritsi arte.

### Idazmakina

Lehen idazmakina Estatu Batuetan egin zuen 1829an William Austin Burt-ek. Karaktereak edo hizkiak gurrupiltxo batean jartzen ziren eta gero presioa egiten zen paperean. Eskuz idaztea baino motelagoa zen. 1833. urtean Xabier Progin frantziarrak idazmakina berri baten patentea lortu zuen; berrikuntza zera zen: karaktere bakoitza palankatxo batean jartzen zela. Lerroen arteko distantzia –lerroarte– kontrolatzeko arrabolaren ekarpena Charles Grover estatubatuarrek egin zuen 1843. urtean. Ondorengo urteetan hainbat asmatzaile, itsuek irakurtzeko aukera izan zezaten, erliebezko makinak egiten saiatu ziren. Horrela, 1856an hizkiak erliebean grabatzen zituen makina asmatu zuten, baina letrak orrialde batean grabatu beharrean paper-zerrendatan grabatzen ziren. Urte berean, hizkiak euskarri zirkular batean eta teklak pianoetan bezala jarrita zituen makina patentatu zuten. Lanean jarraitu eta 1873. urtean, New York-eko Remington and Sons lantegian, idazmakina ekoizten hasi ziren.



ARTXIBOKOA

Idazmakina modernoaren aitzindaria zen: papera arrabol batean jartzen zen, teklak zanpatzearekin eskuinetik ezkerrean mugitzen zen, hizkiko jauzi bat. Palanka baten bidez, arrabola eskuinera eramaten zen berriro eta gorantz eragiten zitzaion. Hizkiak euskarri zirkular batean zeuden jarrita. Hizkiek tintaz betetako zinta jotzean, horrek arrabolaren gainean zegoen papera marrazten zuen. Lehen idazmakina haiek, soilik maiskulaz idazten zuten. 1878an, arrabola jaitsarazten zuten gailua eta tekla bikoitza asmatzean, maiskulaz zein minuskulaz idazten hasi ziren. 1880-90 hamarkadan, Estatu Batuetan, bi idazmakina-eredu berri agertu ziren, Blickensderfer-en gurrupilezko idazmakina eta Hammond-en idazmakina. 1912. urtean idazmakina eramangarriak atera ziren, 1925etik aurrera elektrikoak erabiltzen hasi ziren... eta garapenez garapen gaur egungo idazmakinetara iritsi dira: idazmakina aldi berean fotokopiagailu, ordenagailu, fax eta inprimagailu bihurtu dira.

Askotan telefonoz diktatzen genituen kronikak –batzuetan inprobisatuz–, baina gehienetan autobusez edo taxiz iristen ziren egunkarietako erredakzio-etara. Nik neuk, orain baino sasoi hobearekin, noizean behin bizikletaz ere eramaten nituen. Jakina, telefonoz deitzea azkarragoa zen, baina kazetariak idatzitako testuak jaso behar zituenarentzat erosoagoa zen paperean jasotea telefono bidez ematea baino.



ARTXIBOKOA

Grabagailuak tresna arruntak dira kazetariontzat.

Faxa asmatu zenean bukatu zen herrietako kronikagileentzat autobusaren ordutegiaren morrontzan egotea, baina ez pentsa hura ere berehalakoan sartu

zenik. Hasieran, liburu-dendatan, fotokopia-dendatan eta erakundeetan egoten zirenez, herrietako kronikagileok haien ordutegiaren menpe ibili behar izaten genuen. Gaur egun, berriz, argi dago, faxaren garrantzia gero eta txikiagoa da, posta elektronikoa toki handia kendu baitio, nahiz eta bidali behar dena papera bera denean faxak ezinbesteko izaten jarraitzen duen.

*“duela urte batzuetako grabagailuek ez dute zerikusi handirik gaur egungoekin”*

### Hitzak grabatzeko

Kazetari lana astindu eta arindu zuen beste mirari teknologiko bat grabagailua izan zen. Gurera iritsi zen arte, kazetariak arkatzari edo boligrafoari eta paperari lotuta bizi ginen. Libreta eta arkatza edo boligrafoa kazeta-

### Grabagailua

1935. urtean, AEG Telefunken eta IG Farben enpresek pelikula magnetikobatez estalitako plastikozko banda fabrikatu zuten. Grabagailuaren jatorria zen hori, magnetofonoa. Asmakizuna Alemanian hasi zen erabiltzen, baina, Bigarren Mundu Gerra bukatu eta gero, alemaniarren zenbait tresnaz jabetu ziren aliatuak, tartean magnetofonoak. Horrekin grabagailuen ekoizpen komertziala hasi zen.



ARTXIBOKOA

riontzat arotzentzat belarriko arkatza bezala ziren, geure jantziaren parte. Gaur egun ezin esan desagertu direnik edo desagertzear daudenik, baina bai duela urte batzuk baino gutxiago erabiltzen direla. Izan ere, kazetarien ezaugarri nagusietako bat –aitor dezagun– alferkeria da. Hortaz, prentsaurrekoetan, elkarrizketetan... grabagailuak nagusi izaten dira.

Eskuz idazteko tresnak ere, badaezpada, eramaten dira, baina hizlariak norberak idazten duena baino azkarrago hitz egiten duela jabetu orduko, itxurak egiteko edo paperak marrakiz betetzeko beste ezertarako ez dute balio izaten. Noski, duela urte batzuetako grabagailuek ez dute zerikusi



ARTXIBOKOA

Egungo erredakzioetan ordenagailuak dira jaun eta jabe.



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

Telefonoa eskura izateak abantailak ekarri dizkie kazetariei.

handirik gaur egungoekin. Berriek, tamainaz txiki-txikiak izanda ere, askoz ere hobeto grabatzen dute, grabazioan gauza jakinak azkar aurkitzeko aukera ematen dute, zinten grabazio-denbora bikoizten uzten dute...

“telefono mugikorrek benetako aukera eraginkor gehiago dituzte”

### Telefono mugikorra

Asmatu 1960ko hamarkadan asmatu zen, baina 1979 urtera arte ez zen telefono mugikorren sistema abian jarri, Tokion. Hala ere, 1983. urtera arte, Motorola Estatu Batuetan indarrean jarri zuen arte, ez zen benetako haririk gabeko telefonia-zerbitzuen aroa hasi.



ARTXIBOKOA

Aurkezpen, prentsaurreko, jendaurreko bilkura eta abarretan grabagailuek presentzia handia duten arren, hutsaren pare dira telefono mugikorren ondoan.

Telefono-deia egiteak –bizkor egiteak alegia– benetako garrantzia zuen egun haietan telefonoak ez ziren hain eskura egoten. Telefono-kabinak baziren, baina ez norberak nahi zuen tokian eta unean, eta okupatuta egoten ziren; erakundeetan bertako telefonoa erabiltzeko baimena eskatu behar izaten zen, baimena eskatu barik erabil zitezkeen telefonoetara lankideak bizkorrago irits zitezkeen... labur esanda, telefono mugikorrek kazetariaren lan-egoera eskasa hobetzea ekarri zuten. Edo beharbada ez.

Eztabaida hori, dena den, ez da lerro hauetarako. Kontua da telefono mugikorrei esker kazetariaren, lantokiaren eta lankideen arteko komunikazioa lehen baino askoz ere osotuagoa dela. Eta gero eta osotuagoa izaten jarraituko du, telefono mugikorrek –musikatxoak alda-

### Ordenagailua

Ordenagailu analogikoak XX. mendeko lehen urteetan agertu ziren. Ardatz eta hortz birakarietan oinarritutako makina haiek kalkuluak egiteko erabiltzen ziren. Bigarren Mundu Gerran Ingalaterrako ikertzaile-talde batek lehen ordenagailu digital elektronikotzat hartzen dena egin zuen, *Colossus* ordenagailua. 1943ko abenduan hasi zen lanean. 1.500 balbula eta hutsezko hodi zituen. Gero ordenagailu handiagoak ere egin ziren, *ENIAC* ezaguna bezala, 18.000 balbularekin. 1950eko hamarkadaren bukaeran, trantsistorea asmatu zenean, ordenagailu txikiagoak eta ahalmen handiagokoak egiteko aukera sortu zen. 1960ko hamarkadaren bukaera zirkuitu integratua asmatu zen, eta, ondorioz, plaka bakarrean

trantsistore bat baino gehiago jartzeko aukera sortu zen. Mikroprozesadorea errealitate izan zen 1970eko hamarkadaren erdian, zirkuitu integratuak –plaka bakarrean trantsistore ugari jartzeko

aukera ematen duten horiek– agertu ziren arte. Orduan hasi ziren agertzen ordenagailu pertsonalak eta orduan hasi zen ordenagailuen benetako eragina.



ARTXIBOKOA

tzea bezalako txorakeriekin batera–benetako aukera eraginkor gehiago dituztelako orain, posta elektronikoa eta Interneterako sarbidea, besteak beste. ➔

## Maketatzeko? Mac-ak

Eta posta elektronikoa zein Internet aipatuta, artikuluan zehar zeharka aipatu den arren, ezin albo batera utzi ordenagailua. Ordenagailuek aukera ugari badituzte ere, gure lanbide honetara idazteko makina ordezkatzera iritsi ziren. Ofizio honetan testu prozesatzaile huts gisara erabiltzen hasi ziren eta, idazteko makinari buruz jardun dugunean agertu denez, horretan ekarpen bikaina egin zuten. Gerora maketak egiteko, marrazkiak edo infografiak egiteko, eta argazkiak tratatzeko lana gehitu zitzairen.

Dena den, ez pentsa ordenagailua iristearekin bukatu zirenik maketatzailen buruhausteak, ordenagailu arruntak ez zeudelako horretarako prestatuta. Macintosh ordenagailuek eragin zuten iraultza, gehienbat diseinatzaile grafikoek beharrei erantzuten saiatu baitziren. Estetikaz ere, Mac-ak desberdinak ziren, sagua baitzuten eta PC-ek ez. Hala ere, hasiera hartako ordenagailuak oso motelak –gaitasun txikikoak– ziren idatzizko komunikabideek zituzten beharretarako, batez ere irudiak txertatu behar zirenerako. Prozesatzaileen gaitasuna eta abiadura hazi ahal iritsi da benetako aldaketa.

### Internet

Internet ordenagailuak komunikatzeko sare informatikoa da. Interneteko protokoloa (IP) eta Transmisioaren Kontrol Protokoloa 1973. urtean garatu ziren. Hasieran, sareak ARPAnet izena zuen, eta Estatu Batuetako hainbat unibertsitate, erakunde, eta ikerketa-laborategi elkarrekin konektatzen zituen. Web 1989 urtean hasi zen garatzen.



ARTXIBOKOA



ARTXIBOKOA

Ordenagailu eramangarriak, teknologiaren puntako asmakizuna.

## Aurrerabidean

Aipatutako guztia eta askoz ere gehiago egiten dute gaur egungo ordenagailuek, baina eguneroko idatzizko kazetaritzaren ikuspuntutik begiratuta, iraultza nagusia Internet izan da.

*“inbertsonalizazioa  
eta informazioaren  
berdintasuna  
–onerako zein  
txarrerako–  
dira nagusi  
XXI. mendearen  
hasieran”*

Internetekin informazio-iturrietarako sarbideak berdindu egin dira, on line elkarrizketak egin daitezke, bideo-konferentziak antolatu, argazkiak jaitsi, bahiturak hautsi... guztia sagua erabilita. Eta, martxa honetan, ahotsaren ezagutza garatzen ari diren sistemei esker, saguak eta teklatura erabili beharrik ere ez da izango, ordenagailuari diktatu egingo zaio artikulua.

Ez hori bakarrik; Internetekin kazetari askoren lan egiteko modua erabat aldatu da. Sasoi batean agenda ona edukitzea, toki jakinetan konfiantzazko eta konfidentziazko lagunak izatea, hainbat tokitarako sarbidea edukitzea...

ezinbestekoak ziren kazetaritza-lan txukuna egiteko –lan itzela egiteko hori baino gehiago behar zen–. Agintariei telefonoz deitu behar zitzairen, beren idazkariekin detailetxoren bat edo beste izan, kirolariekin parkean tupust egin behar izaten zen, ezagun hura egunero joaten zen jatetxera agertu, galderak egin honi, galderak besteari, begirada bat emateko dokumentuak eskatu bati, kalea zapaldu beharra egoten zen... harreman pertsonalek garrantzi handia zuten. Inbertsonalizazioa eta informazioaren berdintasuna –onerako zein txarrerako–, berriz, nagusi dira XXI. mendearen hasieran.

Gaur egun, bistan denez, gauzak bestelakoak dira. Kazetariak sarri askotan eguerdi aldera iristen dira lantokira. Ordenagailua pizten dute, posta elektronikoa irakurketa bizkorra egin, atentzioa ematen dien hari begiratu eta jaso egiten dute. Gero, eguneroko bileran gaia erabakitzen dute, berriro ordenagailura jotzen dute, informazioa bilatu, argazkiren bat edo beste eskuratuta, telefono mugikorrarekin deiren bat egin... eta, azkenik, idazteari ekiten diote. Azkenik? Ordenagailu eramangarria asmatu zenetik ezta hori ere, askok etxera eramaten baitute lana. Aurrerabidea omen da. Eskerrak kazetarien ezaugarri nagusia –alferkeria– gordetzen dugunoi seinalerik edo bateriarik eza bezalako aitzakiak gertatzen zaizkigun! 